

UNAMUNO

Aurten Unamuno, bilbotar erdal idazle entzutetsu eta aundienetakoaren 50'gn urtebetzea dalarik, egokiro aintzaldua ta ospatua izan da gora aundiz, bai euzkotarren artean eta Salamanca k burutzen duen españarren artean. Txaloak emen eta an. Españar izkuntzarentzat autortu bearra daukagu ondo irabazita daukala egin dautsen aintzamen eta ospakizunak. Pentsalari urduri; ipuin eta nobelagille on, antzerkigille be bai eta batez be olerkari. Bere garaiko kristau senezko Jaungoikozko bidebillaketan, bere zer izangoz urduri eta kezkatu dasalgu bere arima sinizgabetua. Billaketa edota jakin-muin urduri orretan datza Unamunoren aunditasuna. Olerkari giartsu eta bioztun lez agertzen da bere olerkietan. Beti bizi ezkutu, zergaitiazko barrupean murgilduta geroko orren jakinguran itaunka beti, beren berezko izate «ni» ori betikotua izango dan ala eztan argitu nairik. Idazle lez, bere akatz eta txotxolokeri guztiakaz be, Unamuno erdal izkuntzako olerkari eta idazle gorenetakoa dogu. Ez dautzagu guk, euskaldun sentitzen garanok berak irabazitako izen entzutetsu eder ori iñundik kenduko.

Baña, euskaldun izatetik begiratzen ba-deutsegu onartu eziña da arek artutako gure euskera maitagarriaren aurkako jorkabide ergel eta itsua. Jokaera gaiztoa, ain biurri eta zaputzkiri euskerea ezaindu ta lurperatzen alegindu zanian españar aulkia eskuratu ebanean Bilbo'ko eziñaren ordez.

Ordurarte, antza, gure Miguel gazteak, beste erabatera

ikusten eban euskerearen etorkizuna eta, berea be bai, 1888 garreneko urteko Iraillaren 8, 9, eta 10'an Gernika'n antolatutako EUSKAL LORA JOKUETARA aurkeztu zancan irakurtzeko Felipe Arrese eta Beitia'ren «GURE BANDERA» saritua izan zana orduko idazle bataldian, aboskera ozen, leratsu edota gartsuz.

Aldi artakoa da Unamuno'k idatzi ebana onako idazpuruz
«AGUR ARBOLA BEDEINKATUBE»

«Euskaldunak euskaraz eztakijenak ikasi biar dabe, arren, biotz indartsuarentzako bere errije maitatuten dabena gauza erreza da; badakijenak ez aztuteko, euskerie korapillube estuten dituzana illobak aitona ta gurasoen jakintasuneko ontzije dalako. «Euskeraz berbeiten eben gure aitonen aitona, gizon ayek etorri ziran eztakigu nundik, narruakaz jantzijek, arrizko aizkoriakaz armatubek, pakian lur gogor onetan lan eiteko. Ayek baño gero etorri ziran iberotarrak, zeltak, erromarrak eta arabiarak, ekarri eben bakotxak bere berbakuntza, bañan zalpaldu ziran EUSKAL-ERRIAREN kontra. Euskarazko soñu gozoak entzun ziran Terranoba'ko errijetan Kolon'en jayotza baño len» eta abar... Gero onela darrai: «Orañi arte esan dautsube iaurrera! bañan gure arbolie bere buruba gure burnizko mendijek egin zituzan Jaungoikoa'ren zerura jasotzen dabena erakusten deusku zerura esanda legez gora beti gora!

«EUSKAL-ERRIA amen asi, Zeruan akabauko».

Gero ziara aldatu zan arren jokaerea. Euskereanganako maitasuna baztertu ta Bizkaï'tik Gaztelerriratu yakun. Euskerearen arerijo biurtu zan, euskerearen azpiratzalle. Unamuno il zan, baña euskereak emen dirau eta iraungo dau Jaungoikoak lagun.

Beñat Etxepare'k oiur: «Heuskera, -jalgi asi kanpora». Aintziña baten. Ilunaldi luze askoren ondoren Arana Goiri abandotarrari esker abertzaletasunezko berbizkunde eder bat sortu zan sugartsu. Idazle barri ta onak be azaldu ziran euskera gaxoaren alorra gogotsu landuz. Ta, Unamuno'ri erantzun ederra emon eutson Lizardi'k:

«Baña, nik izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa;

jakite egoak igoa;
sofia zar, berri gogoa;
azal orizta, moin betirakoa».

Euskerea, zoritxarrez, etsaiz, arerioz inguratua bizi izan da beti bai alderdi batetik eta bai bestetik burruka gogorretan burua jaso ezinik. Etsai artean, barruko «arra», euskaldun ardura bakoa dogu ankerrena, euskerea albo batera itxi ta «parra-parra» beti erderaz ari dana..

Gaur egun, berrogei urtetako illunpe, ekitzaldi ondoren euskereak zuzpertzuta aurrera dagi, ez nai genduke lez, baiña, aurrera ikastolen bidez eta abar, itxaropenezko bideetatik geure Jauriaritza ta aldudegiz. Aurrera goaz, aurrera-bide onek dakarzan nekaldi eta etsaikeriz, aurrera.. Bizkaierazko alorrean bertan lan eder asko irakur daikeguz, munduko literaturan gorengo dirarenak: Dante Alighieri-ren «Jainko Antzerkia», Johann W. Goethe-ren «FAUST» «San Iñazioaren denborako Eliza» Latiegi'rena, «Lauaxetaren Olerki Guztiak» Aita Onaindia'k aurkeztua eta, abar.. Idazleetan gai guztiak edo beñienak landu dabezenatari-koak doguz onako auek: Kerexeta, Goiria, Solozabal, Aurre-
Apraiz, Arostegi, Aita Onaindia, Baraiazarra, Erkiaga, Anasagasti, Zubikarai, Akesolo, Olazar, Pujana, Goikotxea, Argintxona, Kaminañazpi, Latiegi, Altuna, Legarza, Arrinda, Bollegi, Iraila, Muniategi, Gallastegi, Bilbao, Azpiri, Etxea, Bidaguren, Batiz, Zubiri, Azpiri.. Zerrenda luze bat.

Ez naiz eta ez gara Unamunoren antzeratsu erderaz ederrik eta sakon idazten daben euzkotarren aurkakoak. Baiña, bai ordea, beren euskerarenganako gorrotoa agertzen edota izeka ezainduraz barre egiten dautsoen aurkakoak. Euskerearen eriotza opa eta nai leukienena Beraz, ekin. Bein bere ezta alperrik izango biotzez, maitasunez egiten dan lana.

Muniategi'tar Sabin